

Hondakinei eta haien Fiskalitateari buruzko Foru Legea Nafarroa, 2018ko ekaina

LEGE BERRITZAILEA DA



Prebentzioa xede, hondakinak gutxitzeko neurrien bidez



Kalitatezko gaikako bilketa, bereziki **materia organikoarena**




Fiskalitate berria, isurketa zigortuz eta Hondakinen Funtsa sortuz



Gobernantza partekatua eta koordinatua

Hondakina izatetik baliabidea izatera, ekonomia zirkularrarekin
Hondakinik onena,
sortzen ez dena



Hondakinei eta haien Fiskalitateari buruzko Foru Legea

Nafarroa, 2018ko ekaina

Hondakinei eta haien fiskalitateari buruzko 14/2018 FORU LEGEA, ekainaren 18koa

Nafarroa, 2018ko ekaina



http://www.navarra.es/home_es/Actualidad/BON/Boletines/2018/120/Anuncio-2/

I. TITULUA. Xedapen orokorrak.

II. TITULUA. Hondakinen arloko eskumenak eta plangintza.

III. TITULUA. Nafarroako Hondakinen Erakunde Publikoa.

IV. TITULUA. Hondakinen prebentziorako eta haien kudeatzeko neurriak.

18. *artikulua.* Hondakinen Prebentziorako eta Ekonomia Zirkularra Sustatzeko Bulegoa.

19. *artikulua.* Erosketa publiko berdea.

20. *artikulua.* Etxeko eta merkataritzako materia organikoaren gaikako bilketa.

21. *artikulua.* Gaikako bilketa eta berrerabilpenerako eta birziklapenerako prestaketa.

22. *artikulua.* Etxeko eta merkataritzako hondakinen isurketa.

23. *artikulua.* Plastikozko poltsen erabilera eta erabilera bakarreko baxeraren salmenta.

24. *artikulua.* Ontzien prebentziorako eta hondakinak kudeatzeko neurriak eraikin publikoetan.

25. *artikulua.* Eraikinetan hondakinak kudeatzeko planak.

26. *artikulua.* Beste kudeaketa sistema batzuk.

27. *artikulua.* Ikuskizun publikoak.

28. *artikulua.* Sentsibilizazio, laguntza eta informazio kanpainak.

V. TITULUA. Hondakinen araubide ekonomikoa Nafarroan.

I. *kapitulua.* Hondakinak erraustearen eta hondakindegietan ezabatzearen gaineko zerga.

II. *kapitulua.* Instalazioen eta jardueren finantza-bermeak.

III. *kapitulua.* Hondakinen Funtsa.

VI. TITULUA. Nafarroako hondakinen ekoizpenaren eta kudeaketaren erregistroa.

VII. TITULUA. Hondakinen garraioa.

VIII. TITULUA. Lurzoru kutsatuak eta hondatuak.

IX. TITULUA. Ingurumen legezkotasuna lehengoratzea.

X. TITULUA. Zehapen araubidea.

- *Lehenengo xedapen gehigarria.* Nafarroako Hondakinen 2017-2027 Plana.

- *Bigarren xedapen gehigarria.* Nafarroako Hondakin Planaren edukia.

- *Hirugarren xedapen gehigarria.* Foru lege honen helburuak betetzeko behar diren baliabideen zuzkidura.

- *Laugarren xedapen gehigarria.* Azterlan teknikoak, demostrazio-esperientziak eta GIIS (gordailu, itzulketa eta itzulera sistema) proiektu pilotuak egitea, Nafarroako Ingurumen Kontseiluaren eta zuzenean nahiz zeharka ukitutako alde guztien parte-hartze aktiboarekin.

- *Bosgarren xedapen gehigarria.* Hondakinen kudeaketarako azpiegitura edo instalazioak dituzten udalerriei eman beharreko kalte-ordaina.

- *Seigarren xedapen gehigarria.* Hondakin mineralak, granularrak eta monolitikoak erabiltzea lehengoratze operazioetarako.

- *Zazpigarren xedapen gehigarria.* Etxeko hondakinen kudeaketan ezinbestez bete beharreko autosufizientziaren eta hurbiltasunaren printzipioak aplikatzea.

- *Zortzigarren xedapen gehigarria.* Hondakinak hondakindegian ezabatzearen eta erraustearen gaineko zerga aplikatzea foru lege honetako etxeko hondakinen eta hondakin industrialen fluxurako.

- *Lehenengo xedapen iragankorra.* Nafarroako Hondakinen Erakunde Publikoa sortzea eta Nafarroako Hondakin Solidoen Tratamendurako Partzuergoa desegitea.

- *Bigarren xedapen iragankorra.* Toki entitateetako ordenantzak.

- *Xedapen indargabetzaile bakarra.* Arauak indargabetzea.

- *Azken xedapenetan lehenengoa.* Araugintza-garapena.

- *Azken xedapenetan bigarrena.* Indarra hartzea.

Nafarroako Parlamentuak **2018ko ekainaren 7an** onartu zuen **Hondakinei eta haien Fiskalitateari buruzko Foru Legea**, era guztietako hondakinen prebentzioan eta murrizketan aurrerapen garrantzitsua eragiten duen araua. Lege berriak ezarritako neurriek, fiskalitatean nahiz material desberdinen xedearen eta tratamenduaren erregulazioan, Foru Komunitateko hondakinen prebentzio- eta kudeaketa-politika zehazten dute, **Nafarroako Hondakinei buruzko 2017-2027 planak** xedatzen duen bezala.

A U R K I B I D E A**A**

| | |
|-------------------------------------|----|
| Zer da Hondakinen Foru Legea? | 08 |
|-------------------------------------|----|

B

| | |
|---|----|
| Zertarako egin da Hondakinen Legea? | 09 |
|---|----|

C

| | |
|--|----|
| Hondakinen Legearen zazpi gako-alderdi | 10 |
|--|----|

| | |
|--|----|
| 1 HONDAKINEN HIERARKIAREN APLIKAZIO ERAGINKORRA | 11 |
| 2 ADMINISTRAZIO EREDUGARRIA | 14 |
| 3 GOBERNANTZA PARTEKATUA ETA KOORDINATUA | 15 |
| 4 FISKALITATE BERRIA | 16 |
| 5 EUROPAKO ARAUDIAREN LEHEN LERROAN | 18 |
| 6 LEGEARI EGINDAKO EKARPENAK PARLAMENTUKO IZAPIDEAN | 19 |
| 7 FORU LEGEAREN ERREGELAMENDUZKO GARAPENA | 21 |

D

| | |
|---------------------------|----|
| Legearen kronologia | 22 |
|---------------------------|----|

A



Zer da Hondakinen Foru Legea?

LEGE BERRITZAILEA DA:

- **Prebentzioa gauzatzeko neurriak dituelako.**
- **Apustu egiten duelako materia organikoaren % 70aren gaikako bilketaren alde.**
- **Fiskalitate zabala aurreikusten duelako:**
 - **isurketa zigortzen duena eta sortzapena ordaintzeari hasiera ematen diona hondakindegian ezabatzearen gaineko zergarekin.**
 - **Eta horrekin, Hondakinen Funtsa sortzen du.**
- **Erakunde bat sortzen du Nafarroan kudeaketa koordinatua eraginkorra eta kohesionatua izateko.**

Hondakinei buruzko lege **OSOENETAKO** bat da, hondakinen kudeaketa berriaren elementu guztiak dituelako.

Gai horri buruz Nafarroan egin den lehen legea da eta Nafarroako Hondakinen 2017-2027 Planeko tresna nagusietako bat bere helburuak lortzeko, ekonomia zirkularra sustatzen duelako eta klima-aldaketaren aurkako borrokan laguntzen duelako. Bere helburu eta xedeek hondakinen prebentziorako konpromiso argiak eta neurri aktiboak islatzen dituzte, eta tresna ekonomikoetan eta kudeaketako antolaketa-neurrietan oinarrituta dago.

Foru Lege berritzailea da prebentzioa gauzatzeko jakineko neurriak antolatzen dituelako, herritarren % 100i materia organikoaren % 70aren gaikako bilketa ezartzearen aldeko apustua egiten duelako eta fiskalitate zabala aurreikusten duelako, zabortegean ezabatzearen gaineko zergarekin eta hondakin-erreketa gaineko hondakinaren ingurumen-eraginaren arabera zergarekin, eta hondakinek giza osasunaren eta ingurumenaren gainean dituzten eraginak arintzeko Hondakin Funtsa sortzen duelako. Horrez gain, Hondakinen Erakundearen figura aurreikusten du, Nafarroan hondakinen kudeaketa koordinatuagoa, eraginkorragoa eta kohesionatuagoa egiteko aukera emango duena.

Osoena da, Estatuko gainerako Autonomia Erkidegoekin alderatuta, hondakinen kudeaketa berriaren elementu guztiak dituelako. Sei autonomia-erkidegok dituzte hondakinei buruzko erregelamenduzko legeak edo testuak: Andaluziak (Dekretua), Kanariak, Kataluniak, Madrilgo Erkidegoak, Valentziako Erkidegoak eta Galiziak. Horietako bi bakarrik dira gerokoak edo aldaketak egin dituzte Hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legea eta Hondakinei buruzko 2008/98 Zuzentarau esparrua indarrean sartu ondoren¹. 2018ko ekainean, Balearretako Hondakinei buruzko Legearen proiektua aurkeztu zen.

1. Informazio gehiago Legearen Eranskinean.

B








Zertarako egin da Hondakinen Legea?

Hondakinen hierarkiarekin betetzeko egin da, kudeaketa egoki eta koordinatua bermatuz eta ingurumena eta osasuna babestuz.

Foru Legea Nafarroako Hondakinei buruzko 2017-2027 Planaren esparruan sortu zen. Hondakinen hierarkiarekin betetzeko eta ekonomia zirkularraren eta klima-aldaketaren helburuak lortzeko funtsezko neurri gisa jasotzen du planak, hondakinei eta lurzoru kutsatuen 22/2011 Legearen arabera eta Nafarroako Foru Komunitatearen eskumenen esparruan.

Hauek dira bere helburuak:

-  Hondakinen kudeaketaren hierarkia betetzen dela bermatzea, hondakin gutxiago sortzea eta berrerabileraren eta birziklapenaren bidezko haien aprobetxamendua sustatuz eta hondakindegian ezabatzea eta hondakinen erreketari sustagarria kenduz.
-  Nafarroako Foru Komunitatean, hondakinen arloa gobernatzeko eredu egoki bat ezartzea.
-  Nafarroan etxeko eta merkataritzako hondakinen kudeaketa egokia bermatzea, Nafarroako Foru Administrazioaren eta Toki Entitateen artean koordinatuta. Hondakinak ezabatzearen gaineko zergaren araubide juridikoa ezartzea.
-  Bermatzea hondakinak kudeatzen direla ingurumena eta giza osasuna arriskutan jarri gabe, Nafarroako biztanleen bizi-kalitatea hobetzearen.
-  Degradaturik gelditu diren espazioak berpiztea eta lurzoruak deskontaminatzea.



Hondakinen Legearen zazpi gako-alderdi

- 1_HONDAKINEN HIERARKIAREN APLIKAZIO ERAGINKORRA
- 2_ADMINISTRAZIO EREDUGARRIA
- 3_GOBERNANTZA PARTEKATUA ETA KOORDINATUA
- 4_FISKALITATE BERRIA
- 5_EUROPAKO ARAUDIAREN LEHEN LERROAN
- 6_LEGEARI EGINDAKO EKARPENAK PARLAMENTUKO IZAPIDEAN
- 7_FORU LEGEAREN ERREGELAMENDUZKO GARAPENA

1

HONDAKINEN HIERARKIAREN APLIKAZIO ERAGINKORRA:

Hondakinik onena, sortzen ez dena


AURRENEKOA, PREBENTZIOA.

HORRETARAKO, LEGEAK HONAKO HAU XEDATZEN DU:

- **Prebentzio-bulegoa sortzea (estrategia eta aholkularitza).**
- **Ontziak eta behin erabiltzeko produktuak pixkanaka-pixkanaka baztertzea:**
 - **Poltsak:** 2018an kobratzea eta 2020an ematea debekatzea.
 - **Kapsulak eta baxera:** erabilera bakarrekoak eta biodegradagarriak ez direnak 2020tik aurrera debekatzea.
 - **Ontziak minimizatzea honako hauetan:**
 - **Administrazio Publikoetan:** ontzietan urik ez saltzea eta edateko ura iturrietan.
 - **Ostalaritza eta jatetxe-arloa:** iturriko ura bezeroen eskura.
- **Beste kudeaketa-sistema batzuk: GIIS (gordailua, itzulketa eta itzulera sistema) osagarria, ezarpen esperimental, progresibo eta partaidetzakoarekin.**
- **Arreta berezia gertakari jasangarriei.**

PREBENTZIO NEURRIAK

Hondakinen kudeaketaren hierarkia aplikatzen du prebentzioko jakineko neurri hauen bitartez:

 **Hondakinen Prebentziorako eta Ekonomia Zirkularra Sustatzeko Bulegoa** sortzea, Nafarroako Hondakinen Planean hondakinen prebentziorako eta ekonomia zirkularra sustatzeko aurreikusitako ekintzak dinamizatu, aholkatu eta kudeatzeko. Bulegoa Nafarroako Gobernuak sustatu du eta bera du buru. Une honetan Nafarroako Hondakinen Partzuergoak, Nafarroako Ingurumen Kudeaketak eta Iruñerriko Mankomunitateak osatzen dute eta hondakinak kudeatzeko enpresa eta erakundeen laguntza du. Etorkizunean Nafarroako Hondakinen Erakunde Publikoak eta hondakinen kudeatzaileek ere hartuko dute parte.

 **Ontziak eta behin erabiltzeko produktuak pixkanaka-pixkanaka baztertzea**

- **Poltsak.** Ingurumeneko kutsadura eta ibai eta itsasoetako uretan duen presentzia ugaria ekiditeko, Plastikozko poltsen kontsumoa murrizteari buruzko 293/2018 Errege

Dekretuarekin bat etorri², arreta berezia jarriko da plastikozko poltsetan, baina arau horretatik harago joango da, 2020tik aurrera debekatuta egongo delako plastikozko poltsak ematea, zatigarriak barne, konpostagarriak izan ezik, UNE-EN 13432:2000 arauaren eskakizunen edo baliokideen arabera.

Pixkanaka-pixkanaka egingo da, saltokietan, etxera eramaten direnean eta lineako salmenten bidez emandakoak kobratu egin beharko dira 2018ko uztailaren 1etik aurrera eta, 2020an debekatu egingo da edozein poltsa ematea.

Dendariek, batetik, kontsumitzaileak informatuko dituzte prezioei buruz, ikusteko moduko lekuan jarri. Bestetik, Ingurumen Departamentuari adieraziko diote zer ingurumen-xedetara bideratu duten plastikozko poltsen truke kobratutako zenbatekoa.

- **Erabilera bakarreko produktuak.** 2020tik aurrera debekatuta egongo da behin erabiltzeko plastikozko plater, edalontzi, taza eta erretiluak saltzea, material biodegradagarriak egindakoak izan ezik.
Eta debekatu egingo da dosi bakarretan edo material ez-birziklagarriekin, organikoki zein mekanikoki, fabrikatutako erabilera bakarreko kapsulatan ontziratutako produktuen salmenta.
- **Ontziak.** Ontziak minimizatzea du xede, hainbat eragile inplikaturatuta:
 - **Administrazio Publikoek** eremu publikoetan edateko uraren iturriak instalatzea edo ura ontzi berrerabilgarrietan erabiltzea sustatuko dute eta euren eraikinetan ura erabilera bakarreko botiletan saltzea ekidingo dute, osasun-zentroetan eta ospitaletan izan ezik.
 - **Ostalaritzako eta jatetxe-arloko establezimenduek** ontzi bat eta basoak iturriko urarekin jarriko dituzte bezeroaren eskura.

BESTE KUDEAKETA-SISTEMA BATZUEN SUSTAPENA





Hondakinen kudeaketan hierarkia aplikatzea lortzeko, Foru Administrazioak berrerabilera, goikaltateko birziklapena eta ontzien materialen balorizazioa sustatuko ditu. Horretarako, Gobernuak **Gordailua, itzulketa eta itzulera sistema**, adostu ahal izango du modu osagarrian kudeatzaile baimenduen bitartez.

Arestian azaldutako guztiak eragin berezia izango du ontziratutako edarien salmentari eta banaketari alternatibak jarri beharko zaizkien **gertakarietan**, betiere, iturriko ura edateko aukera bermatuz edalontzi berrerabilgarrien bidez edo ur botila berrerabilgarrien bidez. Gainera, Gordailu Sistema bat ezartzen ahalko da, ontziak edonon botata geldi ez daitezen edo desgoki kudea ez daitezen.

². ED. 2020/01/01etik aurrera: a) Debekatuta egongo da plastikozko poltsa zatigarriak (...) ematea, (...) saltokietan. b) 50 mikra edo gehiagoko lodierako plastikozko poltsak plastikozko birziklatuaren % 50 izango dute, gutxienez. 2021/01/01etik aurrera, debekatuta egongo da plastikozko poltsa arinak eta oso arinak ematea kontsumitzaileei ondasun edo produktuen saltokietan, baldin eta plastikozko konpostagarriak ez badira.

KUDEAKETA NEURRIAK

Nafarroako 2017-2027 Hondakin Planaren etxeko eta merkataritzako hondakinen bilketa- eta kudeaketa-helburuak jasotzen ditu, honako hauek ezarriz 2027rako:

-  **Ontziak berrerabiltzearen helburuak.** HORECA kanalean (Hotelak, Jatetxeak eta Catering enpresak) ontziak berrerabiltzearen inguruko gutxieneko helburuak ezarri dira 2028rako, ontzi eta edari jakin batzuenak (adib. garagardo-ontzien % 80 eta freskagarrien % 70).
-  **Materia organikoa.** Biohondakinen gaikako bilketaren unibertsalizazioa sustatzen du, Nafarroan nahitaezkoa izango dena 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera, % 70 gaika biltzeko helburuarekin, inpropioen % 10eko edukiarekin, ahal izanez gero konpostatzeko edo biometanizatzeke.
-  **Berrerabiltzeko eta birziklatzeko prestatzea.** Berrerabiltzeko eta birziklatzeko prestatu behar diren etxeko eta merkataritzako hondakinen (papera, metalak, beira, plastikoa, biohondakinak eta beste zatiki birziklagarri batzuk) kantitatea % 75 izango da, gutxienez.
-  **Etxeko eta merkataritzako hondakinen isurketa.** Etxeko eta merkataritzako hondakinen % 25 isuriko da gehienez.

2

ADMINISTRAZIO EREDUGARRIA

ADMINISTRAZIOAK EREDU EMANGO DU:

- Erosketa publiko berdea sustatuz.
- Prebentzioa, ontzi ez-berrerabilgarriak minimizatuz.
- Hondakinak kudeatzeko planak eraikin publikoetan.

EROSKETA PUBLIKO BERDEA SUSTATZEA

Foru Administrazioak Kontratazio Publiko Berdearen Plan bat eta Ekonomia Zirkularra Berritu eta Sustatzeko Plan bat prestatuko ditu, material berrerabilgarriak, produktu birziklagarriak eta material birziklatuen erabilera lehenesteko Gobernuak egiten dituen erosketetan. Gainera, obra publikoen kontratuak gauzatzean material birziklatuak erabiliko direla bermatuko da, esaterako, agregakin birziklatua.

ONTZIEN PREBENTZIOA

Eremu publikoetan edateko uraren iturriak instalatzea edo ura ontzi berrerabilgarrietan erabiltzea sustatuko dute Administrazio Publikoek eta euren eraikinetan ura erabilera bakarreko botiletan saltzea ekidingo dute ontziak minimizatzeako helburuarekin.

HONDAKINEN KUDEAKETA PLANAK

Gobernuak antolatu eta aplikatuko du eraikin publikoetan eta titularrek funts publikoak jasotzen dituztenetan Hondakin kudeaketa-planak idatzi, onartu eta aplikatzea, prebentzioa eta gaikako bilketa sustatuz.

3

GOBERNANTZA PARTEKATUA ETA KOORDINATUA

*Itsasontziak aurrera egiten du
denek noranzko berean arraun egiten badute*

GOBERNANTZA PARTEKATUA:

- **6 hilabetetan Erakunde Publiko bat Partzuergoaren orde.**
- **Gobernuak eta Toki Erakundeek borondatez eratutakoa.**
- **Funtzioak: aholkularitza, koordinazioa, kanpainak, erosketa-zentrala eta zergaren kudeaketa, Hondakinen Funtza banatzeko kontsulta.**

Kudeaketa koordinatuagoa, eraginkorragoa eta kohesionatuagoa egiteko helburuarekin sortuko da Nafarroako Hondakinen Erakunde Publikoa, Toki Entitateek eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eratutakoa. Erakundearen forma juridikoa garatzen ari da eta ahalegina egingo da bere funtzioak betetzeko egokiena izan dadin.

Legeak definitzen ditu haren xedea, osatzen duten administrazio publikoek eta horien funtzioak. Besteak beste, honako hauek dira **funtzio** horiek:

- Prebentzioko kontu eta programetan, sentsibilizazioan, adierazpenen jarraipenean, garrailoan eta tratamenduan eta finantzaketa-iturrietarako sarbidean eskumena duten Administrazio Publikoen aholkularitza eta koordinazioa eta erosketa-zentralaren lana.
- Toki Erakundeek borondatez utz dezakete Erakundearen esku zerbitzu osagarrien kudeaketa, esaterako, hondakinak biltzen direnetik transferentzia-instalazioetarainoko garrailoa, bilketa-ereduen eta puntu garbien ezarpena edo arazo bereziak planteatzen dituzten hondakinen tratamendua.
- Halaber, hondakinak ezabatzearen gaineko zergaren kudeaketaren ardura hartuko du (autolikidazioa, zenbatekoa jasotzea eta Toki Erakundearen artean banatzea entregatutako hondakinen kalitatearen eta kantitatearen arabera).
- Parke Naturaletako hondakinei loturiko zerbitzuak ere kudeatuko ditu, eta kontsulta egin beharko zaio sortuko den Hondakinen Funtza urtero banatzeko irizpideak ezartzeko orduan.

Erakunde berria Foru Legea indarrean sartu eta sei hilabetera sustatuko da eta haren sorrerak Nafarroako Hondakin Solidoen Tratamendurako Partzuergoa desagitea eragingo du.

4

FISKALITATE BERRIA


Egungo hondakin-kudeaketa aldatzen ari gara

EZARRI INGURUMEN-FISKALITATEA:

Isurketari sustagarria kentzeko, prebentzioa sustatzeko eta kalitatezko gaikako bilketa egiteko 2 tresnarekin:

- **Hondakindegian ezabatzearen gaineko zerga Nafarroan zaborrak uzten dituzten entitate eta kudeatzaileentzat. 2018ko uztailaren 1ean sartuko da indarrean eta bildutakoa Hondakinen Funtsera joango da.**
- **Hondakinen Funtsa: Planaren eta legearen neurriak eta ekintzak finantzatzeko:**
 - **Zerga-bilketatik + zehapenetatik + Nafarroako aurrekontu orokorretatik + beste batzuetatik hornituko da.**
 - **Funtsa Ingurumen Departamentuak banatuko du Erakundeari kontsulta egin ondoren.**

Kudeaketaren hierarkia aplikatzea bermatzeko planteatutako funtsezko tresnetako bat ingurumen-fiskalitatea da, isurketari pizgarria kentzeko eta prebentzioa eta kalitatezko gaikako bilketa sustatzeko. Horregatik, Foru Legeak bi tresna garrantzitsu planteatzen ditu:

 **Zerga.** Hondakindegian ezabatzeari eta hondakinen erreketari lotutako zerga bat sortuko da eta Foru Komunitatearen esparruan hondakinak hondakindegian uzten dituzten edo erretzera eramaten dituzten entitate eta kudeatzaileei (pertsone fisiko eta juridikoak) aplikatuko zaie.

Toki Entitateen tasekin bateragarria izango da, ez baititu haiek ordeztuko. Ez du eraginik izango herritarrengan, Toki Entitateetan eta hondakinen kudeatzaileetan baizik. Zerga hori zeharkakoa, erreala, estrafiskala eta finalista da, hau da, ez du pertsona zergapetzen, sortutako hondakina baizik (zeharkakoa); hondakindegian utzitako edo erretako hondakinen gainean ordaintzen da (erreala); zergaren bilketak Foru Legean aurreikusitako neurriak eta ekintzak finantzatzen lagunduko du (finalista) eta bere helburu nagusia kudeaketaren hierarkian eta prebentzioan eragitea da eta, ondorioz, portaeran (estrafiskala). Zerga horrekin lehen urratsa emango da Sortzapen bidezko Ordainketarantz.

Urteko diru-sarrerak Hondakinen Funtsera bideratuko dira. Hondakinen Funtzarekin finantzatuko dira Hondakinen Planean eta Foru Legean aurreikusitako neurriak eta ekintzak, prebentziora eta entitate erantzuleei helburuak lortzeko konpromisoan laguntzera bideratutakoak.

Zerga indarrean sartuko da **2018ko uztailaren 1ean**.



Hondakinen Funtsa

Hondakinek gizakiaren osasunean eta ingurumenean duten eragin kaltegarria arintzeko asmoz sortu da.

Hondakinak kudeatzeko Funtsa honako hauen bidez hornituko da: hondakindegian ezabatzearen eta hondakinak erretzearen gaineko zergaren bilketa, hondakin-arloko araudia haustearen ondoriozko zehapenen bilketa, Nafarroako Foru Komunitateko aurrekontuaren ekarpenak eta beste entitate batzuek emandako diru-laguntzak eta laguntzak.

Hondakinen Erakunde Publikoari kontsulta egin ondoren, ingurumenean eskumenak dituen departamentuak³ urtero banatuko du Hondakinen Funtsa hondakinen hierarkiari, helburuen betetze-mailari eta ingurumen-urgentziari erreparatuta eta hondakin-fluxu bakoitzak Funtzari egiten dion ekarpen ekonomikoaren proportzioan:

- a)** Hondakinen sorrera prebenitzeko ekintzak sustatzea.
- b)** Hondakinen kudeaketarako ikerketa eta garapena, ekodiseinua barne.
- c)** Sentsibilizazioa, komunikazioa, lagun egitea, heziketa eta prestakuntza.
- d)** Berrerabilerarako prestatzeko jarduketak.
- e)** Ekonomia zirkularra sustatzeko eta aldaketa klimatikoaren aurka borrokatzeko jarduketak.
- f)** Gaikako bilketa sistemak hobetzea.
- g)** Birziklapen-sistemen optimizazioa eta/edo hobekuntza eta balorizazio materiala.
- h)** Hondakinen arloko boluntario lanak.
- i)** Hondakinen ondorioz andeatutako eremuak berreskuratzea.
- j)** Hondakinak kudeatzeko instalazioen trazabilitate, kontrol eta estandarizazio sistemak hobetzea.
- k)** Sorreragatiko ordainketa ezartzea.


³ Hondakinen Funtsa modu berezitan txertatuko da bere aurrekontuaren barruan.

5


EUROPAKO ARAUDIAREN LEHEN LERROAN

Bere helburuek aurrea hartzen diote Europako araudian aurreikusiei: bi urte materia organikoaren nahitaezko gaikako bilketarako.

Hondakinei eta haien fiskalitateari buruzko Foru Legea koherentea da Europako araudiarekin eta aurrea hartzen dio helbururen batean:

 **Materia organikoa gaika biltzeko betebeharra bi urte aurreratu da Hondakinen Zuzentarauarekiko⁴:** Europan 2023ko abenduaren 31n izango da nahitaezkoa eta Nafarroan, aldiz, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera.

| Materia organikoaren gaikako bilketaren hedapena | 2016 | | 2022 | | 2023 | |
|--|--------------------------|--|------|--------------------|-------------------|-----|
| | Nafarroako egungo egoera | | ZUZ | HFL | ZUZ | HFL |
| % 51 | | | | % 100 urtarrilak 1 | % 100 abenduak 31 | |

 **Etxeko hondakinak berrerabiltzeko eta birziklatzeko prestaketak % 10 gaitzen ditu EBk aurreikusitako helburuak eta zortzi urte aurreratzen zaie.** Europako herrialdeek⁵ % 55 berrerabili eta birziklatzeko prestaketetara iritsi behar dute 2025ean, % 60ra 2030ean eta % 65era 2035ean eta Nafarroan, berriz, Foru Legeak % 75ean finkatzen ditu 2027rako helburuak.

| Berrerabiltzeko eta birziklatzeko prestatzea | 2016 | | 2025 | | 2027 | | 2030 | | 2035 | |
|--|--------------------------|--|------|-----|------|------|------|-----|------|-----|
| | Nafarroako egungo egoera | | ZUZ | HFL | ZUZ | HFL | ZUZ | HFL | ZUZ | HFL |
| % 37 | | | % 55 | | | % 75 | % 60 | | % 65 | |

 **Isurketa**-arloan, Legea bat dator Zuzentarauak xedatutakoarekin.

4. / 5. 2018/851 Zuzentaraua, 2008/98/EE Hondakinen esparru Zuzentaraua aldatzen duena.






6

LEGEARI EGINDAKO EKARPENAK PARLAMENTUKO IZAPIDEAN



Izapideak iraun duen hilabeteetan, Legeak hainbat zuzenketa onartu ditu, batez ere hainbat alderdi ezartzeko epeei, helburuak zehazteari eta azpiegitura eta garraioagatiko kalte-ordainei buruzkoak.





Izapidetzen ari zela, proposatutako testua Nafarroako Kontseiluaren txostenak berretsi zuen 18-03-27an: "...Hondakinei eta haien Fiskalitateari buruzko Foru Legearen proiektua bat dator ordenamendu juridikoarekin".

Hondakinei buruzko Foru Legearen edukia ere zehazten joan da izapidetzen ari zen bitartean artikuluetako hainbat alderdiri buruzko hainbat zuzenketa sartuta:

-  Hondakinen Erakundeari buruz (15. art.), aholkularitza- eta koordinazio-funtzioan arreta jarriz; eta Hondakinen Funtsaren xedea, fluxu bakoitzaren ekarpenaren proportzionaltasuna eta sortzapenaren araberako ordainketa (43. art.).
-  Dosi bakarreko ontzi eta erabilera bakarreko kapsula ez-birziklagarriei buruz eta 2020tik aurrera horiek saltzeko debekuari buruz (23. art.).
-  Prebentzioa sustatzen duten hondakinen kudeaketa-planak antolatu eta aplikatzeko Administrazio Publikoaren betebeharrari buruz (25. art.).
-  HORECA kanaleko (hotelak, jatetxeak eta catering enpresak) ontziei buruz, berrerabiltzeko jakineko helburuak barne hartuta (26. art.).
-  Arriskutsuak ez diren eta lixibiazio txikia duten hondakin industrial mineralei buruz, karga-mota berriarekin eta 5 €ko kuotarekin ezabatzearen gaineko zergaren barruan (37. art.).

Beste sei xedapen ere gehitu dira:

-  Nafarroako Gobernuak Legearen xedek betetzeko behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak jarriko ditu.
-  Nafarroako Gobernuak 2 urteko epean aurkeztu behar ditu GII (gordailu, itzulketak eta itzulera sistema) proiektu pilotuetatik ateratako ondorioen emaitzak eta txostenak.

-  Kalte-ordainen erregelamendu bidezko definizioa, hondakinak kudeatzeko azpiegiturak edo instalazioak dituzten udalerrientzat interes orokorrerako ekarpen gisa eta emandako ingurumen-zerbitzuaren ordainketa gisa.
-  Urtebeteko epean eremu narriatuak lehengoratzeko erabil daitezkeen hondakin mineralen erabileraren bideragarritasun tekniko eta ingurumenekoari buruzko azterketa egitea.
-  2023tik aurrera, etxeko hondakinen garraioa proportzionaltasunez zergapetuko duten tresna berriak gaituko dira ezabatzeko edo erretzeko azpiegituretarako, autosufizientzia- eta hurbiltasun-printzipioak aplikatuz.
-  2018an eta 2019an, ezabatzearen gaineko zerga pixkanaka-pixkanaka aplikatzea etxeko nahiz industriako fluxuei, 2020an 20 €/t-ko tasara iritsi arte.

7

FORU LEGEAREN ERREGELAMENDUZKO GARAPENA

Nafarroako Hondakinen Ekoizpen eta Kudeaketa Erregistroa sortu da eta bi Foru Dekretu indargabetu dira:

- **Hondakin Toxiko eta Arriskutsuen Ekoizle Txikien Erregistroa.**
- **Hondakin berezien kantitate txikien bilketaren kontrola.**

Foru Legea onartu ondoren, erregelamenduka garatuko da. Hala, Hondakinen Erakunde Publikoaren funtzionamenduko estatutuak garatu eta zehaztu beharko dira gobernu- eta administrazio-organoak, horien osaera eta funtzionamendu-araubidea zehazteko.

Foru Legea indarrean sartzean Nafarroako Hondakinen Ekoizpen eta Kudeaketa Erregistroa sortu da eta bi Foru Dekretu indargabetu dira⁶, Hondakin Toxiko eta Arriskutsuen Ekoizle Txikien Erregistroa arautzen duena eta hondakin berezien kantitate txikien bilketa kontrolatzeko.

Nafarroako eraikuntza eta eraispenetako hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duen 23/2011 Foru Dekretuko 11. artikulua ere ezabatu egin da, Hondakinen Funtsean sartuta geratuko den eremu narriatuak leheneratzeko Funtsa aipatzen duelako.

Gainera, Foru Arauak egingo dira Nafarroa barruan egiten diren lekualdaketei buruzko 180/2015 Foru Dekretuaren aplikazioa garatzeko eta lurzoru kutsatuei buruzko oinarrizko araudia osatzeko eta, beste batzuen artean, honako hauek sartuko dira: lurzoru hondatuaren definizioa, lurzoruaren kalitatea adierazteko prozedura, kutsagarriak izan daitezkeen jardueren inbentarioa, lurzoru hondatuena eta lurzoru kutsatuena eta hondakindegia ohiegi aplikatzeko araubidea.

Ikuskizun publikoei eta hondakinei buruzko erregelamendu bat ere prestatu eta onetsiko da, eta haietan hondakinen kudeaketa-plan bat eta geroko garbiketarako bermeak edo fidantzak eskatuko dira.

Azkenik, bosgarren xedapen gehigarria aplikatzeko erregelamendua egingo da, finantzaketa-metodologia eta ingurumen-zerbitzua konpentsatzeko zenbatekoak zehaztuz hondakinak tratatzeko edo ezabatzeko instalazioak hartzen dituzten toki entitateentzat.

6. 312/1993 Foru Dekretua, Hondakin Toxiko eta Arriskutsuen Ekoizle Txikien Erregistroa arautzen duena, eta 295/1996 Foru Dekretua, hondakin berezien kantitate txikien bilketa kontrolatzeko araubide erraztua ezartzen duena.

D



Legearen kronologia

Lege partaidetzaduna eta adostua: Sei hilabeteko partaidetza: 76 entitate eta partikularren 390 ekarpen, eta urte bat baino gehiagoko lana

2017

Otsailaren 7tik 24ra. Aldez aurretiko kontsulta: Hasierako 58/2017 Foru Arauarekin, otsailaren 2koarekin, aldez aurretiko kontsulta-prozesua hasi zen 2017ko otsailaren 7tik 24ra.

Irailaren 7tik 27ra. Hondakinei eta haien fiskalitateari buruzko Foru Legearen Aurreproiektua. Hondakinei eta haien fiskalitateari buruzko Foru Legearen Aurreproiektua egin zen. Jendauerrean egon zen 2017ko irailaren 7tik 27ra eta gero egin zen Parlamentura bidali zen Foru Legearen proiektua. Ordura arte, 390 ekarpen jaso zituen 76 entitate edo partikularretatik.

Azaroak 22. Gobernuaren erabakia. Nafarroako Gobernuak Hondakinei eta haien fiskalitateari buruzko Foru Legearen proiektua Parlamentura igortzea erabaki zuen.

Azaroak 27. Parlamentuaren erabakia. Parlamentuko Mahaiak Hondakinei eta haien fiskalitateari buruzko Foru Legearen proiektua izapidetzea erabaki zuen.

2018

Urtarrilaren 17tik otsailaren 16ra arte. Zuzenketak aurkeztea. Zuzenketak aurkezteko epea urtarrilaren 17tik otsailaren 7ra hasiera batean eta otsailaren 16ra gero.

Osoko 3 zuzenketa aurkeztu dira (UPN, PSN eta PP), artikuluetarako 23 zuzenketa eta 14 in voce zuzenketa (bost kuartipartitoarenak, sei PPrenak eta lau PSNrenak).

Maiatzak 29. Hondakinei eta haien fiskalitateari buruzko Foru Legearen proiektuaren eztabaida eta bozketa Ingurumen Batzordean. Parlamentuko Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioako Batzordeak Hondakinei eta haien Fiskalitateari buruzko Foru Legearen proiektua eta aurkeztutako zuzenketak eztabaidatu eta bozkatu zituen. Artikulu guztiak, 1. eta 2. xedapen gehigarriak, xedapen indargabetzaile bakarra, 1., 2. eta 3. eranskinak, titulua eta errubrikak eta zioen azalpenaren idazketa berria onartu dira. Xedapena maiatzaren 31n, osteguna, onartu egin zen eta ekainaren 4an argitaratu.

Ekainak 7. Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak Hondakinei eta haien Fiskalitateari buruzko Foru Legea onartu zuen Geroa Bai, EH Bildu, Podemos-Ahal Dugu eta I-Eren aldeko botoekin eta UPN, PSN eta PPNren aurkakoekin.



Hondakinei eta haien Fiskalitateari buruzko Foru Legea Nafarroa, 2018ko ekaina



http://www.navarra.es/home_es/Actualidad/BON/Boletines/2018/120/Anuncio-2/